ATEJOKA 002
URRIA OCTUBRE OCTOBRE 2008

Luis Irizar

# “Euskalduna tradiziozalea da, baina beste sukaldaritza batzuk ezagutzeko prest egoten da eta jakin-min handia du”



*Luis Irizar (La Habana, 1930) euskal sukaldaritzaren patriarkatzat daukate adituek. Berari zor zaio hein handi batean, azken urteotan euskal sukaldaritzaren jauzi kualitatiboa eta mundu osoan ezagun izatea pasatzea. Berak sortu zuen Euskal Herriko lehen sukaldari eskola 1967an, Zarautzko Euromar Hotelean. Bertatik atera ziren gaur egun ospetsu diren goi mailako sukaldari asko. Aipatzekoa da Luis Irizar sukaldaritzan irakasle moduan gailendu dela beti.*

**Beti entzun dugu “Zer ongi jaten den Euskal Herrian!”, eta egia delakoan nago. Baina, noiztik jaten da ongi Euskal Herrian?**
Zoritxarrez, herrialde txikia, oso menditsua, da Euskal Herria, kokapen geografikoa dela eta. Horregatik, sukaldaritza ere nahiko pobrea zen, batez ere herri industrial bilakatu aurretik. Zer geneukan? Bada, azak, arbiak, artatxikia, gaztainak, sagarrak...; lurrak ematen zigun apurra. Horiek janda bizi ziren euskaldunak. Bestalde, itsasoa izan zen euskaldunon salbazioa. Hortxe geneukan, geure muturren aurrean, eta arrantzan aritu behar izaten genuen jango bagenuen. Horrela sortu ziren itsas flotak; horrela egin genuen euskaldunok itsasoan egin dugun guztia, mundu osoaren miresgarri. Gure lurraren eskasiak behartuta egin genuen hori guztia.

**Nolanahi dela ere, Amerikara iritsi eta gero dezente aldatu ziren gauzak, ezta?**
Erabat aldatu ziren. Ikusi besterik ez dago herrialde bakar batetik –Mexiko– ekarri genituen produktuak: artoa, txokolatea, tomatea, patata... Guztiak ditugu oinarrizko lehengaiak, bizitzeko ezinbestekoak, eta denak Amerikatik ekarriak. Horiei esker egin zuen aurrera gure elikadurak.

**Nork erakutsi zizun, bada, jana prestatzen?**
Ez zidan inork erakutsi; neure kasa hasi nintzen. Artea maite nuen nik. Artearekin lotutako zerbait egin nahi nuen, gozogintzan bazen ere. Jatetxe bat –Buenavista– zeukan nire familiak Donostian, Igeldon. Anaia zaharrenak Foru Aldundian lan egiten zuen, baina aparteko orduak egiten zituen María Cristina hotelean, kontabilitate-gaietan. Hotelaren jabeari hitz egin zion nitaz. Jabeak esan zion: “Zure anaiak lan egin nahi badu, has dadila sukaldean, gozogintza ikasten, elkarren osagarri dira eta”

**Ingalaterrara jo zenuen gero...**
Frantzian jardun nuen lehenbizi. Donostiara itzuli, eta lanean hasi nintzen. Lehenbizi, familiarekin; gero, Central izeneko taberna-jatetxea ireki nuen, Lasarten. Orduan eskaini zidaten Ingalaterrara joatea, sukaldariburu, espainiar jatetxe batera. Eta joan egin nintzen, bai.

**Ibilbide horretan, Euromarren aritu zinen. Zer zela eta?**
Sukaldaritzaz gain, irakaskuntza ere gustatu izan zait niri, betidanik gainera. Ingalaterratik nentorrenez, eta Suitzan ere aritua nintzenez, gastronomiaren irakaskuntzaz orduan zeuden ideiarik modernoenak ekarri nituen. Alde horretatik, Suitza izan zen lehena. Asko irakatsi zidaten suitzarrek, eta Zarautzen irakasten saiatu nintzen.
Jendea trebatzeari ekin genion, eta zortea izan dugu, goi-mailako profesional-elitea sortu baitugu. Izan ere, sukaldari bikainak atera ziren handik, bistakoa denez. Nik beti bultzatu nituen onenak izaten saiatzera, lanbide honetan anbizioz jardutera, ‘beste bat’ izatearekin ez konformatzera, aurrera egitera...

**Euskaldun jatunak, elkarte gastronomikoetakoak, harrera ona egin dio sukaldaritza berriari?**
Oro har, jakin-minez hartu duela esango nuke. Kontua da sukaldaritza berriari oso harrera ona egin diotela batzuek: beste batzuek, berriz, bitxikeriatzat daukate; beste batzuk, berriz, tradizionalistak, ez dira ezergatik ere aldatuko. Tradiziozale amorratuak dira batzuk, izan ere. Baina, beno, denetik behar du egon, ezta?

**Beraz, ezin esan euskalduna oso tradiziozale denik?**
Tradiziozalea da, baina ez sukaldaritza tradizionala ez den orori bizkarra emateko adina. Beste sukaldaritza batzuk ezagutzeko prest egoten da, eta jakin-min handia du.
Nazioartean ezaguna den euskal sukaldaritza horretatik, zein dira platerik estimatuenak?
Gure sukaldaritzako platerik ezagunenak, sinpleenak baina aldi berean ezagunenak, hauek dira: legatza euskal erara (ezinbestekoa joan garen leku guztietan); kokotxak (aparteko espezialitatea), aurkitu ditugun leku bakanetan, eta angulak. Bakailaoa pil-pil eta Bizkaiko erara ere erreferentzia dira, eta txipiroiak, berriz, bitxikeria. Harritu egiten da jendea: “Saltsa beltza. Zer da hori?”. Sekula ikusi gabea dutenez, harritu egiten dira, eta, hasieran, ez dute nahi izaten; baina, probatu eta gero, ikaragarri gustatzen zaie. Txangurruarekin ere egin dizkiogu zenbait ekarpen nazioarteko sukaldaritzari.

Elkarrizketa osoa: www.euskonews.com/0455zbk/

Josemari Velez de Mendizabal

JON ETXABE

# 1808ko Baionako Konstituzioa

Joan den uztailaren 7an Baionako Konstituzioaren 2. mendeurrena betetzen zela eta data garrantzitsu hori ospatzeko jardunaldi batzuk ospatu genituen Baionako Zuzenbide eta diziplina anitzeko Fakultatean, uztailaren 4 eta 5ean.

Baionako Marracq-eko jauregian bildu ziren Napoleon Bonaparte eta Jose bere anaia, hainbat espainiar eta euskal ahaldun nagusien artean konstituzio berri eta moderno bat eratu nahian.

Garai hartan ekonomia arloan krisi sakona zegoen, gerra garaia zen. 1805 urtean Trafalgarreko itsas guduan Espainiako itsas armada ondoratua genuen. Garai haietan Europan ere ideiak krisi bizian zeuden, 1789z geroztik frantses iraultzak iparraldeko erakunde foralak ezabatuta zituen, askatasun, berdintasun eta anaiarte printzipioen izenean.

Baionako Konstituzioa honek Frantziako Konstituzioan jasotako ideia liberalak biltzen saiatu zen monarkia parlamentarioa eta estatu erakunde modernoak sortuz: Estatu kontseilua, gorteak, senatua, botere exekutiboa, botere judiziala eta lurralde antolamendua. Ez dago bertan, subiranotasun nazionalari buruzko aipamenik zeren Espainiako mentalitatean botere absolutuaren ideia jainkoak emanikoa da eta horrelako adierazpenak herriak eta elizak ez zituen erraz ontzat emango. Aldaketa sakonak proposatzen dira baina inolako iraultzarik egin nahi gabe. Miguel Artolak zioen bezala balore frantsesak inportatu nahi dira Napoleonen garairako lortutako heldutasunean. Horrela, botereen banaketa jasotzen du baina botere judizialari baino ez dio bere independentzia errekonozitzen. Hori bai, eta Maite Lafourcadek zioenez, Frantzian gertatzen zen bezala guzti hori itxurazko aldarrikapen bat besterik ez zen zeren errealitatean lege-ekimena erregeak bakarrik du eta epaileak erregeak izendatzen ditu. Konstituzioan jasotzen diren eskubide indibidualak ere garrantzitsuak dira, hots; egoitzaren bortxaezintasuna, torturaren abolizioa, habeas corpusa, inprimatzeko askatasuna, zergak ordaintzeko berdintasuna eta kargu publikoetara heltzeko berdintasuna, merkataritzan jarduteko eskubidea. Bestalde, konstituzio berrian lehenengo aldiz inkisizioa eta eskubide feudalak deseginik gelditu ziren.

Jardunaldi hauetan ikasi genuen, Frantziako lurralde antolamendu uniformean gertatu ez zen bezala, Baionako honetan euskal foruek izan zutela zer esanik eta bere 144. artikuluan Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarentzat planteatzen zen bere foru partikularren izaera, esanaz: Lehenengo Gorteetan aztertuko dira eta bertan ebatzi probintzia hauentzako zer den komenigarriena eta zer nazioarentzat. Hona hemen, geroago 1839 lege itunduak bere 2. artikuluan jaso zuen "batasun konstituzionalaren kalterik ezean" formula hura.

Goio Monreal irakasleak xehetasun osoz azaldu zigun nola han ibili omen ziren euskal ahaldun nagusiak Napoleonen aurrean gure legeak edo "konstituzio historikoa" defendatzen, monarkiarentzat ere interesgarriagoa zelakoan, alde batetik koroarekin sinatuta zegoen paktu historikoa hausten ez zelako eta, bestaldetik, bi lurraldeentzat bakea izatea, oparoagoa, aberatsagoa eta errespetuan oinarritutako ituna zelako. Jean Pierre Massiak irakasleak gogoratu zigun nola Jean-Jacques Rousseau filosofoak lotura estuak zituen euskaldun intelektualekin eta nola bere ideietan azaltzen den obligazio sozialak ezin dutela menekotasun eta indarrean oinarrituta egon herria eta erregearen arteko sortzezko kontratu sozial baten pean baizik. Ez omen zegoen Rousseau jauna, Montesquieu eta Voltairekin ados, bera demokrazia zuzenaren aldekoa zen eta demokrazia ordezkatzailearen kontrakoa, ordea.

*La cuestión de la pervivencia de los fueros vascos aparece por primera vez en la Constitución de Bayona de 1808*

Entzun genuen ere nola Iparraldean, Konbentzioko garaian, Frantziako barne ministroa izan zen Dominique-Joseph Garat jaunari, Napoleonek Euskal Herriari buruzko txosten bat egiteko eskatu ziola... Honek, Napoleoni zazpi euskal lurraldeentzat konstituzio bakar bat aurkeztu omen zion enperadoreari, "Fenizia berria" bezala izendatu zuena. Oinarritzat hartzen zituen euskal lurralde guztien anaitasuna, hizkuntza baten jabe izatea eta itsasorako grina eta ezagutza. Inperioarentzat ohorezko itsas armada berri bat eraikitzea proposatzen zuen eta euskaldunak soldadutza itsas armadan bakarrik egin zezatela.

Ezin ukatu eta horrela onartu zuten gehienak, Baionakoa izan zela Espainiak izan duen lehen konstituzioa eta euskaldunak XIX mendean, lehen aldiz, han defenditu behar izan genuela gure ohiturazko konstituzioa. Berehala datorkigu Cadizeko konstituzioaren ospakizun berria eta lau urte barru, horrek ere izango du zer kontatu gure historia osatzen joateko.

## Paperetik sarera

www.euskomedia.org







## Va de fotos: diga «patata»

Hace ahora diez años veía la luz (la luz de la pantalla de los ordenadores) el primer número del semanario electrónico *Euskonews & Media*. **Jorge Oteiza**, a punto de cumplir 90 años, afirmaba en la entrevista que le hacía Josemari Velez de Mendizabal: "He sabido vivir". Un decenio y 455 números de *Euskonews* después, la revista dedica un número monográfico al autor de *Quousque tandem!* con motivo de su centenario. De ello resulta que sigue siendo verdad lo que el propio Oteiza afirmara en vida: "Yo he sido sepultado, pero no he fallecido".

Una de las esculturas más conocidas del genio de Orio es la que se encuentra en el Paseo Nuevo de Donostia, a dos pasos del Aquarium. Por una feliz coincidencia, este mismo 2008 también se cumplen cien años de la Sociedad Oceanográfica de Gipuzkoa, institución impulsora y rectora del Aquarium-Palacio del Mar, edificio que tras una profunda renovación va a ser inaugurado oficialmente uno de estos días. Buceando en los fondos de imágenes de Eusko Ikaskuntza encontramos una carpeta que, con el título ***El Aquarium de ayer en imágenes***, contiene una preciosa selección de fotos históricas que se pueden ver con solo entrar en www.euskomedia.org.

Y de fotos también trata la muy recomendable exposición del Museo Vasco de Baiona. Bajo el título "Pays Basque 1860-1930. Un monde intemporel? Photographies anciennes dans les collections du Musée Basque", se exponen cerca de 300 fotos, de las más de 5.000 con que cuenta el museo, representativas de un período en el que la vida vasca quedó fijada por medio de la imagen. Como modesto complemento, en euskomedia.org se han colgado varias **fotografías de Ipar Euskal Herria** pertenecientes a su colección histórica.

Para que alguien salga favorecido en una fotografía se le invita a pronunciar "Patata". Palabra que corre en todos los idiomas en este Año Internacional de la Patata, y más aún en Gasteiz por ser escenario en octubre del Congreso Iberoamericano sobre Investigación y Desarrollo del tubérculo. En los fondos documentales de Euskomedia hemos encontrado un interesante informe del ingeniero agrónomo y publicista bilbaino **Bernardo Mesanza** fechado el año 1949 que describe la selección de la patata en Alava, primer territorio en aquel entonces donde –según se indica– se cultivaba "según las normas que dicta la genética vegetal". Todo lo anterior lo podemos ver y leer asomándonos a la ventana ATEJOKA de www.euskomedia.org.

Viviana Iriart

# Vascos en las letras argentinas



La presencia del caudal inmigratorio vasco y su complejo proceso de recepción y aculturación ha sido abordado en la literatura argentina desde dos enfoques, hoy insuficientes.

El primero se basa en una mirada antropológica, centrada en la genealogía de los autores "portadores de sangre vasca", como si el lugar de origen garantizara *per se* su legitimidad literaria. La configuración de este modo de leer, ha llevado a la reivindicación de escritores menores como Domingo de Azcuénaga (cultor de fábulas encorsetadas por las rígidas formalidades del género) o el deán Gregorio Funes (más interesante a los ojos de la historiografía que a los de la literatura). Desde ese mismo espacio genealógico se han atribuido rasgos de vasquidad a autores fundacionales como Esteban Echeverría (iniciador del cuento) o Juan Bautista Alberdi (potente ensayista), ambos pertenecientes a la primera generación romántica, que, paradójicamente, jamás asumieron en sus escritos la "vasquidad" como cuestión identitaria. Antes bien la diluyeron en un hispanismo al que acusaban de oscurantista y del que se despojaron no sin violencia.

En tanto, la segunda corriente ha puesto el acento en la temática vasca circunscripta a la escritura de asunto inmigratorio, pero sin ahondar en los procedimientos, operaciones y lenguajes presentes en los procesos de ficcionalización, procesos siempre culturales, precisos, relacionales. Los vascos que, como personajes aparecen en las letras modernas argentinas, atraviesan todas las tensiones históricas que se tejen en el seno de la sociedad. Por ejemplo, la elite liberal de 1880 que emprende en sus manos la construcción del Estado, oscila entre el respeto hacia aquellos vascos que pertenecen a su clase y el rechazo cuando forman parte de la inmigración reciente, como se observa en *Juvenilia* de Miguel Cané o en *La gran Aldea* de Lucio V. López (clásicos del canon oficial de enseñanza durante todo el siglo XX). Cuando la hegemonía cultural evidencie sus primeras fisuras ante la burguesía ascendente, los vascos devienen objeto de parodia en el costumbrismo de Fray Mocho o del propio Francisco Grandmontagne (empeñado éste en borrar o reconocer sus ancestros euskaldunes, según soplen los vientos de la Fortuna).

También soportan tensiones estéticas e ideológicas los pirenaicos que aparecen en obras de *Florida* y *Boedo*, grupos antagónicos de mediados de la década del 20. Para Borges, representante del primero, a través de finos procesos de individuación, los vascos se convierten en exponentes míticos de una cultura rural atravesada por la oralidad y la atemporalidad. Para Arlt, por el contrario, inclinado a la literatura social de *Boedo*, *Euskadi* es una realidad que sorprende, asombra y desconcierta, interpelando a quienes saben que el mundo es ancho y plural.

A raíz de la guerra del 36, la temática vasca en nuestra literatura diluye su perfil específico. La producción de Amado Alonso o Juan Larrea, es leída como española, en tanto que la fundación de Editorial *Ekin* y sus textos en euskera (en particular la traducción del *Martín Fierro* de Hernández por parte de Txomin Jakakortajarena), correrán por circuitos subalternos.

En los textos de los años siguientes, desde la década del 60 a la actualidad, la temática vasca habitará nuevos universos en los márgenes, en los buceos interiores de la memoria o en los retazos que se arrancan al olvido, como se aprecia en la pluma de Marta Mercader, Miguel Briante o Andrés Rivera.

"Los vascos en la literatura argentina 1810-1955".
En: *Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEV*, 53, 1 (2008), pp. 83-151

## Gertatu zen









### 1918-1923:

### Eusko Ikaskuntzaren lehen urratsak

### Los primeros pasos de Eusko Ikaskuntza

### Les premiers pas d'Eusko Ikaskuntza

La historia de la primera Eusko Ikaskuntza se divide en tres etapas: el período fundacional (1918-1923), la dictadura (1923-1931) y los años de la II República (1931-1936).

**Euskaltzaindia eta beste**
Eusko Ikaskuntzaren sorrera ondoko aldian -1918-1923- bi Kongresu egin zituen irakaskuntza eta hizkuntzari buruz, baita Batzarrak ere, Udal Administrazioa eta Itsas Arrantzari buruz. Euskal Unibertsitatearen lehenengo proiektua idatzi zuen, euskarazko lehen eskola liburuak inprimarazi eta ikastolaren oinarri teorikoak ezarri zituen. Eusko Ikaskuntzak bultzatuta sortu zen Euskaltzaindia 1919an.

**Formation, recherche, vulgarisation**
Elle a dispensé des cours de méthodologie et de haute culture, elle a lancé des appels à concours et elle a réalisé des tâches de documentation et d'archivage. La Société a octroyé des bourses et pensions, elle a aidé à financer des prospections archéologiques et elle a assumé la publication de l'Annuaire de la Société Eusko-Folklore et de la Revue Internationale d'Études Basques.

**Giza taldea**
1918ko araudiak hiru bazkide mota ezarri zituen: Sortzaileak, Osoak eta Babesleak (udalak, alderdi politikoak, klubak, elkarteak...). Geroago, beste bazkide mota batzuk sortu ziren: Biziartekoak, Ikasleak eta Merezimenduzkoak.
Lehenengo aldian, Eusko Ikaskuntza giza talde handi batez aberastu zen: 1919an ia 700 kide bildu ziren elkartera, eta 809 ondoko urtean. Primo de Riveraren diktadura denboran, urtero-urtero bataz beste ehun inguru bazkidek eman zuten izena.

**Perfil humano**
Respecto a su perfil, las mujeres eran minoría, cosa lógica en un país donde sus derechos civiles no estaban reconocidos. Por el artículo 4 del Reglamento, no podían pertenecer a la Junta Permanente. En 1919 tomaron el carné sólo 12 mujeres, pero al año siguiente ingresaron 131, educadoras en su mayoría como resultado de los trabajos del II Congreso.
Por territorios, guipuzcoanos, vizcaínos y navarros eran, por este orden, los más numerosos. Y si analizamos los sectores sociales y familias políticas representadas, se observa una preponderancia del "sector autóctono y católico del país, sin que pueda decirse otro tanto respecto a los partidos nutridos de la inmigración obrera o de la burguesía mas laica" (Idoia Estornés).

# Kultura Ereileak

## Aquarium-Palacio del Mar de Donostia-San Sebastián

Año de creación: 1928.

Institución impulsora: Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa

Actividades: Divulgación de la vida marina, sensibilización medioambiental y compromiso con el avance científico.

### Objetivos

- Divulgar el respeto por el océano
- Impulsar el conocimiento del medio marino
- Conservar y mostrar el patrimonio marítimo y naval vasco
- Desarrollar un proyecto educativo
- Impulsar el turismo de ocio

### A tener en cuenta

Fue el primer museo dedicado a las Ciencias Naturales del Estado español.

Casi 16 millones de personas lo han visitado a lo largo de su historia. Después del Museo Guggenheim de Bilbao, es el de mayor afluencia de Euskadi (350.000 vistantes al año).

Pero, además de un museo, el Aquarium es un centro de encuentro, reflexión, debate e innovación sobre los asuntos de la mar.

### Centenario

En 1908 se fundó la Sociedad de Oceanografía de Gipuzkoa, germen del futuro Aquarium-Palacio del Mar. Este centenario coincide con una remodelación profunda de sus instalaciones.

### Sede

Ubicado como un escalón entre el puerto donostiarra y el Paseo Nuevo, en 1998 se ampliaron sus instalaciones por debajo del paseo y se añadió un túnel interior con tiburones, tortugas y peces.

En 2008 se inaugura la renovación del edificio antiguo. Al mismo tiempo se colocará la primera piedra de la tercera fase de la remodelación que estará dedicada, fundamentalmente, a la investigación sobre los túnidos.

### Ciencias del Mar

El Aquarium participa en el Master Europeo de Biología Marina, juntamente con Southampton National Oceanographic Centre, la Universidad de Burdeos, la UPV-EHU y Fundación Azti.

### El emblema

Aunque en su imagen corporativa sea otra (ver ilustración), el elemento emblemático del Aquarium donostiarra es un esqueleto de ballena capturada en aguas guipuzcoanas. Ese esqueleto, restaurado en un centro especializado, colgará en el renovado museo con una imagen de cómo era la ballena en realidad.

***Web***: http://www.aquariumss.com

**Video en**: www.euskomedia.org

# Argitalpenak



## La Banda Municipal de Viana

Autor: Labeaga Mendiola, Juan Cruz
Viana: Ayuntamiento, 2008
224 p. : il. ; 24 cm
ISBN: 978-84-92489-03-9

Una de las instituciones más queridas por los vianeses ha sido su Banda Municipal de Música nacida a finales del siglo XIX. Este libro recoge su historia a través de los distintos períodos que señalan cada uno de sus directores, precedido por un primer capítulo donde se fijan los antecedentes que le dieron origen, principalmente la Sociedad Filarmónica de Viana fundada en 1817 cuya orquesta fue la base sobre el que se sustentó, bastantes años después, el nacimiento de la Banda Municipal. El libro destaca por su excelente edición e ilustraciones.



## Historia de la pelota en Agurain-Salvatierra

Autor: Ruiz de Egino, Kepa
Agurain-Salvatierra: Ayuntamiento, 2008
100 p. : il. ; 21 cm

Esta historia integral del fenómeno pelotazale en Agurain-Salvatierra empieza con las primeras noticias conocidas o supuestas y termina en las esperanzas en el porvenir. En el camino, hace repaso a los frontones, a los jugadores, a los campeonatos, a las modalidades de juego y a los artesanos fabricantes de herramientas y pelotas. El calor que el autor le imprime al texto juntamente con las numerosas fotos que lo ilustran, conforman un libro que constituye un recorrido sentimental a la par que una contribución a la historia del deporte en Agurain.



## Zilargintza Gipuzkoan. XVI.-XVIII. Mendeak / El Arte de la Platería en Gipuzkoa. Siglos XVI-XVIII (I-II)

Autor: Miguéliz Valcarlos, Ignacio
Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2008
293 + 640 or. : ir. ; 30 cm
ISBN: 978-84-7907-593-4

Liburu hau Ignacio Miguélizek 2004an Nafarroako Unibertsitatean defendatu zuen doktore tesiaren ondorioa da. Bertan hainbat alderdi aztertzen dira: lurraldeko tenpluetan kontserbatu diren zilarrezko piezak, horiek landu zituzten zilargileak eta lan hori zein egoeratan gauzatu zuten, bai gizartearen ikuspegitik nola familiarenetik. Bertako zilargileek landuriko obrekin batera, probintzian kontserbatu diren kanpoko tailerrenak aztertzen dira, zeinak penintsula, Europa eta Ameriketatik zetozen.



## Propiedad, burguesía y territorio. La conformación urbana de Getxo en la Ría de Bilbao (1850-1900)

Autor: Beascoechea Gangoiti, José María
Bilbao: UPV-EHU, 2007
395 p. : il. ; 22 cm
ISBN: 978-84-8373-961-7

En este estudio se analiza el proceso por el que la dedicación de los terrenos de la orilla derecha del Abra, fundamentalmente en Getxo, a avanzados proyectos de promoción veraniega, que giraban sobre las playas y los servicios de ocio burgués, generó un espacio urbano de unas características excepcionales a finales del siglo XIX. Esta definición constituyó un paso clave en su posterior fijación residencial, y su inmediata configuración como espacio referencial, además de marco elitista por antonomasia de la aglomeración urbana de la Ría Bilbao.

ATEJOKA
002
URRIA
OCTUBRE
OCTOBRE
2008

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA
90
1918-2008

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

**Argitalpen Idazkaria**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Atejoka etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
María Díaz de Haro, 11-1
48013 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 8:30-14 eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00- 15:00

**Horario**
De lunes a jueves de 8,30-14 y de 15:30-17:30; viernes de 8:00-15:00

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00 et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008.
Fotokonposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena A. G. Astigarraga